# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## AFESTTA. TOURETTE EUSKADI

Patakon eta Ane Pirata liburutegira joan dira. Asko gustatzen zaie liburu artean ibiltzea, abentura zoragarriak ezagutuz. Gaur Anderren eguneroko abentura ezagutu dute.

IRRIEN LAGUNAK BIZIPOZA

*elkarlanean*







Testua: Amagoia Mujika. Marrazkiak: Jorge Madejon


Barkatu.
Ez du apropos egin.
Ezin ditu tik horiek
kontrolatu...
Barkatu, barkatu.
Bihurrikeriatan zebilela
pentsatzen nuen.
NIOA
C
D


Aizu...
ondo zaude?
Zerbait pasatzen
zaizu?
Ondo nago.
Tourette sindromea
daukat eta ezin ditut
tik horiek kontrolatu.
Baina ez dakienak
ez ditu ulertzen mugimendu
eta soinu horiek. Eta gu ja
nekatuta gaude, egun guztian
azalpenak ematen...
KURURU
ZE
O-P


Goazen maitea.
Hartu liburua eta
goazen...
Bai ama,
goazen
azkar.


OUAH!
OUAH!
OUAH!




TOURETTE Euskadi

AFESTTA

**AFESTTA Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familia elkartea da.** Tourette Sindromea tikak egiteko bereizgarritasuna duen osasun-arazo neurologikoa da. Tikak motoreak edo fonikoak izan daitezke. Horiekin batera, beste osasun-arazo batzuk ere azaltzen dira gehienetan (tdah, nahasmen obsesivo konpultsiboa, jokabide arazoak, etab.).



Ez da endekapenezko gaixotasuna eta ez dio adimenari eragiten. Pertsona gutxiri eragiten die, eta gaixotasun ezohikoen barruan sartzen da. Afesttaren helburua gaixotasun ezezagun hau ezagutzera ematea da.

Afestta Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familia elkartea
www.touretteeuskadi.blogspot.com.es
Emeterio Arrese kalea 2, Tolosa
Tel: 667781866